

UZTAILAREN 1eko 6/1985 LEGEA: BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOA

(JATORRIZKO BERTSIO OSOA GAZTELANIAZKO ORRIAN)

231. artikulua.

1. Epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta epaitegietako eta auzitegietako gainerako funtzionarioek gaztelania -Estatuko hizkuntza ofiziala- erabiliko dute jardun judizial guztietan.
2. Epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta epaitegietako eta auzitegietako gainerako funtzionarioek autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala ere erabili ahal izango dute, baldin eta alderdietako batek ere aurka egiten ez badu, hizkuntza hori ez dakiela alegatuz, modu horretan defentsa-gabezia sor dakiokenean.
3. Alderdiak, alderdien ordezkariak, alderdien zuzendaritzan dihardutenek, lekukoak eta adituek jardun judizialak izango diren lurraldeko autonomia-erkidegoan koofiziala den hizkuntza erabili ahal izango dute, bai ahozko adierazpenetan baita idatzizkoetan ere.
4. Autonomia-erkidego bateko hizkuntza ofizialean gauzatutako jardun judizialek eta aurkeztutako agiriek erabateko baliozkotasuna eta eraginkortasuna izango dute, gaztelaniara itzuli beharrik gabe. Jardun judizial eta agiri horiek autonomia-erkidego horretako organo judizialen jurisdikziotik kanpo izan behar dituztenean ondoreak, ofizioz itzuliko dira, beste autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala berbera denean izan ezik. Era berean, itzuli egingo dira legeetan horrela ezartzen denean edo defentsa-gabezia alegatzen duen alderdiak hala eskatzen duenean.
5. Ahozko jardunetan, erabiliko den hizkuntza dakien edonor baimen dezake epaileak edo auzitegiak, interprete-lanak egiteko, beti ere pertsona horrek behar bezala zin egin edo hitzeman ondoren.

341. artikulua

1. Zuzenbide Zibil berezia edo forala eta berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia-erkidegoetako auzitegi nagusietako eta probintzia-uzitegietako lehendakariaren lanpostuak betetzeko,

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak merezimendutzat hartuko du zuzenbide zibil berezian edo foralean aditua izatea eta autonomia-erkidego horretako hizkuntza jakitea.

2. Aipatutako autonomia-erkidegoetako zuzenbide zibil berezi edo foralaren eta hizkuntzaren ezagutza balioesteko irizpideak erregelamendu bidez ezarriko dira, eta ezagutza hori lehentasunezko merezimendutzat hartuko da erkidego horietako lurraldeetako organo jurisdikzionaletan jarduteko lehiaketetan.

483. artikulua

1. Espainiako Konstituzioko 103-1 art. an zehaztutako printzipioekin bat, irizpide objektiboei jarraiki eta berdintasuneko, merezimenduko, gaitasuneko eta publikotasuneko printzipioei jarraiki hautatuko dira karrerako funtzionarioak.
2. Gai-zerrenda eta probak berak izango dira, Estatu osoan, kidego bakoitzarentzat, bereganatutako eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetako hizkuntza jakitea eta zuzenbide zibil foral edo berezia ezagutzea egiaztatzeko probak izan ezik; proba horiek hautazkoak izango dira, ez dira inola ere baztertzaileak izango, eta ezarritako baremoarekin bat lortzen den puntuazioa dagokion autonomia-erkidegoan lanpostua esleitzeko ondoretarako soilik hartuko da kontuan.

530. artikulua

1. Bereganatutako eskumenak dituen autonomia-erkidegoko berezko hizkuntzak izaera ofiziala duenean eta deialdiko lanpostua autonomia-erkidego horretarako denean, hizkuntza hori hitz egiten eta idazten jakitea merezimendutzat hartuko da. Zenbait lanpostutan, lanpostua lortzeko nahitaezko betekizun izan daiteke hizkuntza hori jakitea, bete beharreko eginkizunen izaera kontuan hartuta beharrezkoa denean eta lanpostuen zerrendetan hala ezartzen denean.